

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3790

272/2026 EBAZPENA, abuztuaren 10ekoa, Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Administrazioko Taldeko buru (ekonomiako eremua) bat izendatzen baita, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitalean.

210/2026 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Administrazioko Taldeko buru (ekonomiako eremua) lanpostu bat izendapen askez hornitzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitalean.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Yolanda Goitia Mazo andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori Administrazioko Taldeko buru (ekonomiako eremua) buru izendatzea, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitalean.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hirugarren arau komunean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Administrazioko Taldeko buru (ekonomiako eremua) izendatzea Yolanda Goitia Mazo andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitalean.

Bigarrena.— Izendapen honek EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.— Izendapena egin duen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere esku-men-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak honako hau eragingo du: langilea beste lanpostu funtzional batera lekualdatuko da, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko die. Hain zuzen, ezaugarri berberak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurralde-eremu berberetan. Atxikitze horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua hornitzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.— Interesdunari, Bilbo-Basurtuko ESlari eta Gorlizko Ospitaleari ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gorliz, 2026ko abuztuaren 10a.

Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentea,
JESÚS MARÍA ROMÓN MARTÍNEZ.